

Gasteizko birdentsifikazioa. Iraunkortasuna zurigarri gisa



Unai Fernandez de Betoño °

Gako-hitzak:
hirigintza, dentsitatea,
trinkotasuna, iraunkortasuna,
Gasteiz

Gasteiz, Bilbo baino handiagoa

Espainiako 57/2003 legearen arabera Gasteiz *hiri handia* da, Hego Euskal Herriko gainerako hiru hiriburuak bezalatsu (1). Ongi kokatuta Iberiar penintsulako erdiko goi-ordokiaren eta gainerako Europaren artean, XX. mendean eduki duen hazkunde demografikoa, Bilborena baino askoz txikiagoa izanda ere, Donostiak eta Iruñeak eduki dutenaren parekoa izan da. 1980ra arte, gutxienez. Zeren eta orduz geroztik, industria-birmoldatzea jazo eta egungo zerbitzu-hiri postmodernoa bilakatu bitartean, bere biztanleriak gorakada nabarmena jazo du besteen aldean, orain dituen 240.000 biztanleak erdietsi arte.

Gasteizko etxebizitzaren hazkundea, ordea, ez da izan biztanleriaren gorakadarekiko proportzionala, baizik eta askoz ere handiagoa, bai kopuruari dagokionez, bai lurzoru-azaleraren okupazioari dagokionez (are larriagoa dena). Arabako Lautadak eskaintzen duen erraztasun orografikoak, batez ere Bilboren eta Donostiaren aldean, eragin du Gasteizko hiriritarte-prozesua trinkotasun dezente txikiagoarekin garatu izana. Areago, Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) arabera, pasa den 2010ean, etxebizitzarako hiri-lurzoruak 984 hektareako azalera okupatzen zuen Donostian, 1.241 ha Bilbon, eta 1.489 ha Gasteizen (2)! Alegia, Bilboren biztanleriaren bi heren soilik edukita (INEren arabera, 2010ean 238.247 gasteiztar zeuden eta 353.187 bilbotar), eta Bilboren etxebizitza-kopuruaren erdia baino pixka bat gehiago edukita hiri-lurzoruan (EUSTATen arabera, 84.702 etxebizitza daude Gasteizen eta 150.002 Bilbon (3)), bere hedadura —eta, adi, ez gaude udalerraren azalera hitz egiten— % 17 handiagoa da!

Segregazioaz harro

Aipatutako datuek iradoki dezakete bizitza-kalitatea handiagoa dela Gasteiz hirian, espazio libreen azalera handia-

goaren ondorioz. Hain zuzen ere, horretaz harrotzen dira hiri arabarreko politikariak, batez ere *European Green Capital 2012* izendatu zutenetik. Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorren (HAPO) memoriak ere hori aipatzen du, hirugarren esaldian dagoeneko: “*Egungo Gasteiz hiri ordenatua da, espazio libre ugarikoa, ekipamenduen sare osatua duena, bai eta erabileren segregazio nabarmena ere, batez ere etxebizitzarako eta industriarako erabilerena*” (4).

Haatik, espazio libreen oparotasun goraiatu hori aho biko arma da, hiri-egitura zuloz beteriko emmental gazta moduko bat bihurtu baitezake. Hutsune horien tamainak eta kopuruak muga jakin bat gainditzen baldin badute, hiriak iraunkorra eta eraginkorra izateari utz diezaioke; horrek argi sustatzen baitu hiri-barreiatzea eta erabileren demaseko segregazioa (HAPOk ongi ikusten duen zerbait, bitxia bada ere, arestian aipatutako esaldiaren amaieran egiaztatu daitekeenez). Hau guztia bereziki hauteman daiteke Gasteizen garatu diren azken hiru auzo handietan: Lakua (ipar-mendebaldeko zabalpena), Salburua (ekialdeko zabalpena) eta Zabalzana (mendebaldeko hedapena), dagoeneko Gasteizko hiri-lurzoruaren parte bilakatu direnak, ia osorik.

Esalditxo


“*Zabaleran garatutako bazkondearen alde egin genuen, garaieran garatutakoaren aurka: huts egin genuen*” onartu zuen publikoki Patxi Lazkozek berak, Gasteizko alkate oraindik zela, pasa den martxoaren 30ean, hiriburu arabarrean antolatutako I Hirigintza Iraunkorraren Nazioarteko Topagunean. Lazkozek erabilitakoa maiestate-, apaltasun- edo egiletza-plurala ote den ikertzea denbora alferrik galtzea izan daitekeenez, gatozen hausnartzera salatutako hirigintza-hutsegiteaz eta hura konpontzeko ezarri nahi den erremedio zalantzarriaz.

(1) Espainiako Aldizkari Ofiziala. 301. zk., 2003ko abenduaren 17koa


(2) www.eustat.es/elem/ele0006500/xls0006534_c.xls ikontsulta: 2011-11-17

(3) *Ibidem*

(4) Behin betiko 2003an onetsitako HAPOren Berrikuspenaren Testu Birmoldatuaren I Liburukia. ALHAO. 37. zk., 2003ko martxoaren 31koa (gehigarria)



Hego Euskal Herriko hiriburuen azken mendeko demografi a-bilakaera (Eustat)



Lakuako ACTURen antolakuntza-proiektua. J. L. Izquierdo Dobarco, 1972

Dentsitatea gora, dentsitatea behera

Azaldutako arazoa ez da mugatu behar hazkunde horizontalaren eta hazkunde bertikalaren arteko dikotomia sinplera. Hiriaren konfigurazio espazialerako erabakigarriak diren hiru faktoreak ere aztertu behar dira: trinkotasuna, jarraitutasuna eta dentsitatea. Hala ere, dentsitateaz soilik hitz egiten da; Gasteizi dagokionean, bederen.

Eta orain badirudi Gasteizen *mea culpa* kolektiboa abestu behar dela, aipatutako Salburua eta Zabalzana auzotzarrak berriki eraiki ondoren, hiri-eskala desegokia aukeratu omen delako. Bi zabalpen berri horiek 22.000 etxebizitza jaso behar zituzten hasiera batean, 610 ha-ko lurzoruan, zeinak bakarrik 36 etxebizitza/ha-ko batez besteko dentsitate gordina zekarren. Non-bait, Gasteizen inork ez zekien hainbat hirigilek aspaldi esana zutela hiriek, osoki iraunkorrak izan daitezzen —ekologikoki, ekonomikoki eta sozialki—, 65 etxebizitza/ha-ko dentsitatea behar dutela gutxienez (5), hots, ia dentsitate bikoitza!

Baina hau aspaldi genekien!

Ez dezagun pentsatu, hala ere, Salburua eta Zabalzana aspaldi planifikatu eta urbanizatu zirenik, egun hain pil-pilean dagoen ingurumenaren paradigma hirigintzaren mundura sartu baino lehen. Ez da hala. XX. mendearen amaieran proiektatu eta XXI. mendean jada urbanizatutako bi auzo dira. Ordurako, gainera, eskala desegokiko auzotzar baten berri bazuten gasteiztarrek: Lakua, laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadetan eraikitako barruti erraldoia. 35 etxebizitza/ha-ko dentsitatearekin planifikatu zuten Lakua hasiera batean, ACTUR (Larrialdiko Hirigintza Jarduerak) plan baten garapen aldatu gisa, 1972an hasieran onetsia 466 ha-ko azalera nabarmen baterako. Lakuarako planifikatutako etxe-uharteak 650 x 350 m-koak ziren, kaleak 32 m-ko zabalera, eta hiribide nagusia 92 m-koa! Lakuaren gauzatze luzean zehar egindako hainbat aldaketa eta gero, auzoak 51 etxebizitza/ha-ko batez

besteko dentsitate gordina du egun (6), oraindik ere aski ez dena lehen aipatutako hiri-iraunkortasunaren ikuspegitik.

Baina, aspalditik baldin bagenekien Lakua *botza* zela, dentsitate eskasekoa eta trinkotasunik gabea... nolatan ez zen goitik behera zalantzan jarri oinarritzat zuen hiri-eredua, Salburua eta Zabalzana auzo berriak antolatzeke orduan? Berrikuspen kritikoa, ordea, une honetan egiten da, paradoxikoki, auzo horiek ia amaituta daudenean.

Arazorako ustezko panazea

Eta dagoeneko bi errezeta proposatu dituzte egindako hutsegitea konpontzeko: barne-hustuketa (Hiri Hitzarmenaren bi Eranskinen bidez (7) eta birdentsifikazioa (HAPORen bi Berrikuspen Partzialen bidez). Alegia, etxebizitza-tipologiaren *jibarizazioa* —gogoratzen jibaroak, etsaien buruak txikitzen zituzten basatiak?—, eraikinen barnean etxe txiki kopuru handiagoa lortzeko; eta birpartzelazioaren birpartzelazioa, kanpoan espazio eraikigarri gehiago prest edukitzeko. Lehen errezeta ulertu daiteke, infraetxebizitzaren itzuleraren itzala hortxe gertu susmatzen bada ere. Bigarren errezetak, baina, zalantza legal handiegiak sortzen ditu hasteko, EAEko 2/2006 Lurzorua Legeak argi uzten baitu 40. artikuluan zatietzinak direla hirigintza-eraikigarritasuna azaleraren arabera esleitura duten partzelak.

Baina kontzeptualki ere ez daude zalantza gutxi, proposatutako aldaketa ez baita huskeria: hirigintza ustez zuzentzeko operazioak beste 7.000 etxebizitza tasatu berri eraikitzea ahalbidetuko du bi auzoen artean; eta ez ahaztu horiei babes ofizialeko beste 3.000 etxebizitza gehitu behar zaizkiela, 2004ko lehen barne-hustuketan jada erantsi zirenak. Hortaz, hasierako plangintzak barne hartzen ez zituen 10.000 etxebizitza berri ekarriko ditu iraunkortasuna zurigarri gisa erabili duen Gasteizko birdentsifikazioak, alajaina!

(6) *Revisión Parcial del PGOU de Vitoria-Gasteiz en el ámbito de suelo urbano de los antiguos sectores 2, 3, 5 y 6 (Zabalzana) y 7, 8, 9, 10 y 11 (Salburua). Mejora de la continuidad y compacidad de la trama urbana y aumento de la edificabilidad. Aprobación inicial. 2010eko abendukoak. I Agiriko 4. or.*
 (7) 1. Eranskina 2004ko martxoaren 15ean onetsi zuen Tokiko Gobernuko Batzarrak (2004ko apirilaren 16ko ALHAOan argitaratua, 43. zk.); 2.a. 2008ko abuztuaren 1ean (2008ko abuztuaren 29ko ALHAOan argitaratua, 98. zk.)

(5) Salvador Rueda biologoak. esaterako, 60 etxebizitza/ha-ko gutxienezko dentsitatea gomendatzen du: <http://ttiki.com/32974> ikontsulta: 2011-11-17



Kolore marroiz, Zabalganako 2, 3, 5, eta 6. (goian) eta Salburuko 7, 8, 9, 10 eta 11 (behean) antzinako sektoreen birdentsifikaioaren ondoriozko eraikin berriak.

Honakoa, birdentsifikaio planifikatzeko HAPOren bi berrikuspen partzialetakoa bat baino ez da.


Eta espazio publikoaren eskala?

Udaleko teknikariek berek Gasteizko birdentsifikazioa intelektualki zurrizten dute nonahi: “(...) *etxebizitza guztiak orientazio bikoitza dute, baina blokeen arteko distantziak eta hiri-espazioen kopuru handiak eragiten dute poligono berri hauek ia bizitzarik ez edukitzea; beno, bizitzarik eduki badute, baina 50 etxebizitza/ha horiek giza bero handiagoa behar dute*” (8). Esan gabe doa giza bero hori lortzeko proposatu den sendabide bakarra hutsuneak etxebizitzet betetzean datzala. Baita azkar bete ere, auzoak kontsolidatu eta auzokide berriak gehiegi antolatu eta gotortu baino lehen. Hala ere, eraikitze-dentsitatea areagotu arren, Salburuko eta Zabalganako espazio publiko gehienaren eskala ez da hainbeste aldatuko auzoen osotasunaren ikuspegitik.

(8) Ana Isabel Oregi Bastarrika, Gasteizko Udaleko arkitektoa, 2010eko apirilaren 27an, Madrilen: <http://ttiki.com/32975> Ikontsulta: 2011-11-17

Bitxia bada ere, foro eta argitalpenetan *birdentsifikazioa berdin iraunkortasuna* hainbeste errepikatzearen poderioz, sukar birdentsifikatzailea politikari eta teknikari ugariren artean hedatu dela dirudi, eta haiek dira, neurri handi batean, udalerriko hirigintzaren gaineko erabakiak hartzen dituztenak. Berdin dio higiezinaren azken burbuilak 2008an eztanda egin izana, Gasteizko etxebizitzaren ia herena *familia* pertsonabakarrak beteta egotea, edo hirian 9.531 etxebizitza huts —ia % 9a— egotea (9). *Barnera bazi* beharra dago, etxebizitza gehiago eraiki, hiri-hutsuneak mukurutu, espazio berde *alferrikakoak* bete, guztia hirian dauden *etenak ezabatze*ko aitzakiapean. Horiek dira errepikatutako mantrak.

(9) <http://ttiki.com/32976> Ikontsulta: 2011-11-17



Sansomendi auzoko Borinbizkarrako BEPB, lehen eta ondoren, zeinetan ingurubidearen hiri-hutsunea gogotik betetzen den. Araújo Brieva Arquitectos, 2008

Huts eginiko beste birdentsifikazioak

Horrela, 2007an, udal-gobernua 450 etxebizitza eraikitzen saiatu zen Arana auzoko espazio libre berde kontsolidatu batean. Helburu horrekin idatzi nahi zen Tres Santos gunearen Barne Eraberrikuntzarako Plan Berezia (BEPB). Sansomendi auzoan beste hainbeste egiten saiatu ziren udalekoak, 2008an. Beste 450 etxebizitza eta bulegorako 20.000 m² eraiki nahi izan zituzten beste espazio libre berde batean, Borinbizkarrako BEPBren bidez. Aipatutako bi birkalifikazioek huts egin zuten, auzokideen mobilizazio aktiboari esker. Hala ere, Gasteizko hirigintza zuzentzen duten besaulki erosoetatik ez da hitz autokritikorik entzun: *“kasu jakin baretan [Tres Santos eta Borinbizkarrak], proposamenen kalitateak ez zuten merezi adostasuna bilatzeko ahaleginik egitea; horrexegatik bertan behera utzi genituen ideia horiek, nabiz eta auzokideek beren garaipentzat jo izan”* (10). Dena den, gogoratu beharra dago huts eginiko Borinbizkarrako proposamenerako nazioarteko prestigioaren ustezko babesa bilatu egin zela, European etxebizitza-lehiaketa esperimentalaren bidez (zeinetan bakarrik parte hartzeko Gasteizko Udalak ordainketa handia egin behar izan baitzuen). Oraingoz, ordea, *ez da pasatu*.

Bitartean, Juan Carlos Alonso hirigintzako azkenaurreko zinegotziak hedabideetan esan zuen ez dutela baztertzen Lakua auzoaren beste birdentsifikazio bat etorkizun hurbilean (11). Gainera, birdentsifikatzeko moda hau ez da bizitegi-erabilera soilik mugatuko. Dagoeneko hitz egiten ari da orain arte ukiezina zen Gasteizko eraztun berdearen betetzeaz, ekipamendu berrien bidez, *berde hornitu* moduko bat osatzeko (12). Eta datorren abiadura handiko trenaren geltokiarekin beste berdegune kontsolidatu bat bete nahi zuten, Arriaga parke atsegina, auzokideen protestek eta egungo alkateak —momentuz— gelditu badute ere. Bide batez, ez legoke batere soberan EAEko hurrengo Lurzoruaren Legeak ondo zehaztea zer den *eztabaida larriak egotea*, egungo 2/2006 Legeak herri-kontsultak egiteko 108. artikuluan eskatzen duen baldintza lausoa.

(10) Alfredo Piris Pinilla, XXI Zabalguneko zuzendaria, 2009ko irailaren 16an. Gasteiz: <http://ttiki.com/32977> Ikonsulta: 2011-11-17

(11) <http://ttiki.com/32978> Ikonsulta: 2011-11-17

(12) Ikus <http://ttiki.com/32979>

(13) ‘Revisión Parcial del PGOU de Vitoria-Gasteiz en el ámbito de suelo urbano de los antiguos sectores 2, 3, 5 y 6 (Zabalguna) y 7, 8, 9, 10 y 11 (Salburua). Mejora de la continuidad y compacidad de la trama urbana y aumento de la edificabilidad. Aprobación inicial’. 2010eko abendukoak. I Agiriko 12. or.

(14) BAJO MARTINEZ DE MURGIA, Fernando. ‘Lakua. Principio y fin del urbanismo moderno en la capital de Euskadi’. Ondare, 26, 2008. 277-286 or. ISSN 1137-4403

Hiru ondorio kezkarri

Arlo formal edo legalari dagokionez, arazoaren garrantzia nahita txikitu da. Birdentsifikazioa aurrera eramateko pausok HAPOn berrikuspen oso, argi eta garbia bideratzea eskatzen zuten, eta ez azkarrago eta erosoago joateagatik Gasteizen egin dena, hots, Hirigintza Hitzarmenaren bi Eranskin gisa izapidetu (2004an eta 2008an), ondoren Plan Orokorren bi Berrikuspen Partzial bideratuz (2010ean). Hortik datoz Berrikuspen Partzial horien katramilak justifikatzeko erabili dituzten plangintza-figurak: alde batetik onartzen dute aldakuntzaren tamainak ez duela uzten Aldaketa sinple gisa izapidetzen, baina, bestalde, Berrikuspen Partziala zuzenesten dute aldaketak “lurraldearen zati bakar bati eragiten diolako” (13). Hau da, sinistu behar dugu ezen Salburuan eta Zabalgan 10.000 etxebizitza gehiago eraikitzeak ez duela Gasteizen eraginik sortuko. Seriotasun gehiago, otoi!

Iraunkortasunaren zurigarriari dagokionez, arazoaren garrantzia nahita handitu da, baita *a posteriori* handitu ere. Salburua eta Zabalguna eraiki ahala proposatutako barne-hustuketek eta birdentsifikazioek eraikigarritasun eta dentsitate-parametroak makillatzea baino ez dute lortuko. Ez dute hiri-bilbea jarraituagoa eta trinkoagoa bihurtuko. Zabalpen berrietan dentsitate handiko gune batzuk sortuko dira, hori egia da, baina auzoaren osotasunean anekdota hutsa baino ez direnak izango.

Eta morfologiari dagokionez —ziur aski arazo honen guztiaren mamia—, ez dira kritika handiak entzun. Kaleen zabalera gehiegizkoa soilik aipatu izan da. Kontua da auzo berrien etxeharte mota, irekiagoa izanagatik, ez dela Lakuako eruditik hainbeste urrundu. Horrelaxe onartu du bai Zabalganako plan partzial batzuetan zein oraingo birdentsifikazioan parte hartu duen Fernando Bajo arkitektoak: *“edonola [Salburua eta Zabalganako] dispersioa nabaria da (...). Finean, eskaintzen duten hiri-eredua ez da [Lakuakoaren] borren ezberdina”* (14). Gauzatutako hiri-morfologia ere seriooki eztabaidatu beharko litzateke, beraz.

Ea uneotan kozinatzen ari den Plan Orokorren datorren berrikuspenak kontuan hartzen dituen gai hauek guztiak.

° Unai Fernandez de Betoño arkitekto doktorea eta EHUko irakaslea da.

